

ETXARRI ARANATZEN EZKONTZA ZIBILAK ETA HILDAKOEN ALDEKO AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ATARIKOA

Erakundeek gizarte ez-konfesional bateko pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa eta erlijiosoa bermatu behar dute, aukera berdintasuna eskainiz. Era berean, badakigu ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizartea dela gurea, eta gizarte anitz honetan bere ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua aldatzen ari dela etengabe.

Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da ezkontza zein hildakoen aldeko hileta edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitzea hautatu duten pertsonen omenez ospakizun duin eta pertsonalak egin ahal izateko, zenduaren bizitza-ikuskeraren arabera, alegia.

Gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijio desberdinek beren hildakoei agur esateko ospakizun liturgikoetarako toki edo tenpluak dituzten moduan, Etxarri Aranazko Udalari dagokio egunetik egunera handitzen ari den eskaera sozial bati erantzutea.

Beraz, ordenantza honen helburua da arautzea, alde batetik Etxarri Aranazko ezkontza zibilen ospakizunak, eta bestetik familia, lagun, erakunde edota entitateek beren hildakoei egindako omenaldi edo azken agurrak.

I. TITULUA: EZKONTZA ZIBILAK

I. KAPITULUA

PROZEDURAREN HASIERA

1. artikulua.

Herritar guztiek, Etxarri Aranatzen erroldaturik egon edo ez, eskatu ahal diote Alkatetzari ezkontza zibilak egitea.

Eskaerak zeremonia egiteko egunaren eta orduaren erreserba baizik ez du ekartzen; horregatik, Etxarri Aranazko Udalak ezkontza zibila egin ahal izateko nahitaezko baldintza izanen da lehenago titularrek organo judizial eskudunaren (Erregistro Zibila, bake epaile etab.) aldeko auto irmoa lortzea, Kode Zibilean ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen espediente aldez aurretik haren aitzinean tramitatuta.

Eskaera Etxarri Aranazko Udalak horretarako duen inprimakian bete beharko da; baldintza guztiak bete ondoren, inprimakia Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da, ezkontza egiteko finkaturiko eguna baino hilabete lehenago, asko jota. Halaber, arlo hau arautzen duen ordenantzan tasarik balego, hau ordaindu izanaren ordain-gutuna aurkeztuko da.

Noiz eskatzen diren eguna, ordua eta lokala, ordena horri hertsiki loturik egingen dira erreserbak. Udalak lokal horien erabilerari dagokionez dituen premien arabera emanen da baimena, ordenantza honen 3. artikuluan xedatuarekin bat.

Alkatetzaren ebazpen baten bidez baimenduko dira eguna eta ordua, baita ezkontza zibila egitea zer zinegotziren eskutan utziko den, hala egingen bada.

2. artikulua.

Ezkontza egiteko ordutegi finkorik egonen ez bada ere, ezkontza ospakizuna egingen duen alkate edota zinegotziarekin adostu beharrekoa izanen da.

3. artikulua.

Ezkontza zibilak egiteko Udalak jarri duen lehentasunezko tokia udaletxeko bilkura-gela da. Areto hori okupaturik badago, beste toki bat utziko da ezkontzen direnen eskura; bestela beste egun batean egiteko aukera izanen dute. Ezohikotasunez, beste udal instalazio bat erabili liteke, alkateak propio hala onartzen badu. Ezin izango da ezkontza zibil ofizialik egin udal eraikinetatik kanpo.

Ezkontzarako ez-ohiko altzariak beharko balira (aulkia, mahaiak...), horiek erabiltzeagatik ezartzen den ohiko tasa ordaindu beharko da.

Udal jarduera dela-eta edo aurreikusi gabeko beste arrazoiren bat dela-eta, ezin bada finkaturiko egun eta orduan ezkontza egin, ezkontzen direnei horren berri emanen zaie, Alkatetzarekin aurretik ados jarrita, hura egiteko ordua, eguna edo tokia aldatzeko.

Eskatzaileetarikoa batek erabakitzen badu ezkontza zibila ez egitea, arlo hau arautzen duen ordenantza fiskalean xedatuari jarraituko zaio.

II. KAPITULUA

ZEREMONIA NOLA GAUZATUKO DEN

4. artikulua.

Zeremonia alkateak zuzenduko du, edo zinegotzi batek, haren eskutan utzi bada; horiek, ezkontzen direnekin hitz eginda, askatasun osoa izanen dute nola gauzatuko den finkatzeko. Hala ere, ezkontza zibilak legeak ematen dizkion ondorioak izan ditzan, nahitaezkoa izanen da Kode Zibileko artikulua irakurtzea.

5. artikulua.

Ekitaldia jasota gera dadin, ezkontzen direnek, lekukoek, alkateak edo zinegotziak, ezkontza egin izanari dagokion akta sinatuko dute, horretarako jasotzen dena.

II. TITULUA: HILETA ZIBILAK

I. KAPITULUA

PROZEDURAREN HASIERA

6. artikulua.

Araudi honen helburua da hildakoen aldeko hileta eta omenaldi zibiletarako Etxarri Aranazko Udalaren baimena arautzea, eta baita ere lokalen eta espazio publikoen erabilera.

7. artikulua.

Alkatetzak emanen du hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako tokiak erabiltzeko baimena, betiere Etxarri Aranazko Udaleko Udal Erregistroan eskaera egiten duen pertsona edo senideak bidali beharreko dokumentazioa jaso ondoren.

II. KAPITULUA

PROZEDURARI HASIERA EMATEA

8. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak erregistro bidez idatziz egin beharko dira, Alkatetzari zuzendutako eskarian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeak ezarritakoaren arabera (39/2015 eta 40/2015).

9. artikulua.

Hileta eta omenaldi zibilen eskaerak berehalakotasun-printzipioaren arabera tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen duelako, eta horiek ebazteko eskumena duen pertsonari bidaliko zaizkio.

10. artikulua.

Eskaeran honakoak agertu beharko dira:

- a) Ospakizunerako baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.
- b) Hildako pertsonaren izen-abizenak.

c) Adierazi egin beharko da hileta edo omenaldi zibila zein egun eta ordutan egin nahiko litzatekeen, eta lehentasunez non egin nahiko luketen.

d) Eskabidearen lekua eta data.

e) Eskaera egin duenaren sinadura edo, haren nahia benetakoa den froga, horretarako edozein bide erabilita.

f) Ekitaldiaren laburpena eta beharrak. Eskatzaileak aretoan dauden baliabideak erabili ahal izanen ditu. Bestelako baliabiderik behar izanez gero, norberaren kontura izanen dira, eta Udalaren baimena beharko da horiek erabiltzeko.

h) Administrazioak, ahal duen neurrian, kontuan izanen ditu eskabidean lehenetsitako lekua, eguna eta ordua, betiere eskabideak aurkeztu diren ordena aintzat izanik. Ezohiko kasuetan aldatu ahal izanen da ordena hori, baina betiere arrazoitu egin beharko da aldaketa.

11. artikulua.

Eskaerak aurreko artikulua eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari ahalik eta lasterren eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo derrigorrezko dokumentuak ekar ditzan, ekitaldia egin baino lehen edo ondoren.

III. KAPITULUA

PROZEDURA BIDERATZEA

12. artikulua.

Alkatetzak zehaztuko du hileta edo omenaldi zibila zein leku, egun eta ordutan egingen den.

Eskatzaileek lehenetsitako egun eta orduen ordena kontuan izanik zehaztuko dira, ahal den neurrian behintzat, lekua, eguna eta ordua. Udal aretoen erabilera anitzaren ondorioz, zenbaitetan ezin izango da eskatutako orduan uzterik izanen. Nolanahi ere, horrelakoetan erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da eta eskaera egin dutenekin hitz egin beharko da eskatu dutenarekiko egon den aldaketari buruz.

13. artikulua.

Eskaera ikusita, Alkatetzak edo berak ordezkotako izendatzen duen zinegotzigoak erabakiko du hileta edo omenaldi zibila Udalaren zein lokaletan egingen den; normalean Udaletxean edo Kultur Etxean. Hileta edo omenaldi bakoitzean erabiliko den lokala zehazterakoan, kontuan izanen da aukeratutako egun eta ordutegiarekin lokal horietan normalean egiten diren jardueretan ez dela eragozpenik sortu behar. Aretoa aukeratzekoan kontuan hartuko da, baita ere, lokal bakoitzak zenbateko aforoa duen:

14. artikulua.

Hileta eta omenaldi zibilak astelehenetik igandera ospatu ahal izanen dira. Asteburuetan udal-langileen disponibilitatearen arabera moldatu beharko dira ordutegiak. Hiletetan ezin izango da gorputza bertan eduki.

III. KAPITULUA: ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK

15. artikulua.

Eskatzailearen betebeharra da ezkontza, hileta eta omenaldi zibiletan udalaren aretoak egoera onean mantentzea.

Bestalde, baimendutako pertsona izanen da Udalaren aretoetan sor daitezkeen kalteen arduraduna, eta bere gain hartu beharko ditu eragindako kalteen gastuak.

16. artikulua.

Debekatuta dago arroza eta antzekoak botatzea udal-eraikinen barnean, estalopean zein inguruetan, arriskutsua uizan baitaiteke. Betebegar hori betetzen ez bada, Udala ez da batere erantzulea izanen. Beraz, horren ondorioz istripurik edo gisakorik gertatzen bada, erantzunbeharra ezkontza egiteko eskatu dutenek izanen dute, eskaeran jasorik geldituko baita arau horien berri dutela eta horiek hertsiki betetzeko hitza ematen dutela.

Udalaren barnea erabiltzearen ondorioz edo baldintza hauek ez betetzearen ondorioz kalterik egiten bada, erantzunbeharra ezkontza egiteko eskatu dutenek izanen dute; Udalak haiei pasatzen ahalko die konponketen kostua, baita, hala behar badu, udal barnea beren lehengora itzultzeko lanen kostua ere, aitzinetik behar den espedientea irekita; hartan, hamar eguneko epea izanen da alegazioak egiteko.

17. artikulua

Aretoa eskatu duen personaren ardurapean geratzen da lokalaren aforoa ez gainditzea, eta hori betetzen ez bada eta horren ondorioz istripurik edo gisakorik gertatzen bada, erantzunbeharra berak izanen du. Hona hemen odenantza honek jasotzen dituen eremuen aforoa:

Udaletxeko batzar-gela: 100¿? lagun

Kultur Etxeko areto nagusia: 224 lagun

Kultur Etxeko bideo gela: 45 lagun

18. artikulua.

Utzitako lokala apaindu edo modu bereziren batean egokitu edo apaindu nahi bada, udal zerbitzuari garaiz eskatu eta jakinarazi beharko zaio, honek hartu beharreko erabakia har dezan. Tokiaren ezaugarriak beti errespetatu egin beharko dira, eta eskatzaileek ordaindu beharko dituzte lokala apaindu eta egokitzeak eragindako gastu guztiak, horrek eragin dezakeen garbitasun berezia barne.

Behin ekitaldia amaituta ezin izango da apaingarri edo arrastorik utzi (loreak, konfeta, paperak...) ez barruan, ez kanpoan, eta lokala zegoen moduan utzi beharko da.

Interesduna arduratuko da, bere kontura arduratu ere, ekitaldia ospatzeko zerbitzu eta egokitzapen osagarriez. Dena dela, Etxarri Aranazko Udalak zerbitzu horiek ikuskatu ahal izanen ditu.

19. artikulua.

Eraikinak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa honako hau izango da: 31 € enpadronatutakoek, eta 300 € enpadronatuta ez daudenek. Ezkontzen kasuan, ezkonkide bat enpadronatua egotea nahikoa izango da. Hileta edo omenaldien kasuan, hildakoa edo omendutakoa da enpadronatuta egon beharko dena.

20. artikulua.

Araudi honetan aurreikusi gabeko gainerako guztian udal arduradunen aginduak bete beharko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Etxarri Aranazko Udaleko Alkateari baimena ematen zaio araudi hau aplikatzeko beharrezko diren jarduketa guztiak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean eta Udalbatzak espresuki aldatu edo indargabetzen duen arte egonen da indarrean.